

## Euskal AEko ia enpresa guztiek egin zuten izapide elektronikoren bat Administrazioarekin 2020an

### *IKT ekipamenduen erabilgarritasuna eta langileek egiten duten erabilera askoz ere handiagoa da Administrazioan enpresetan baino*


Euskal AEko enpresen % 93,5ek izapide elektronikoak egin zituen Administrazio Publikoarekin 2020an, Eustatek prestatutako datuen arabera. Izapide hori zuzenean, hirugarrenen bidez (aholkularitza-etxeak...) edo bi prozeduren bidez egin daiteke. Hala, enpresen % 51,8k izapideren bat egin du zuzenean (2019an baino ehuneko 2,9 puntu gehiago), eta % 73,9k hirugarrenen bidez egin du (urtebete lehenago baino ehuneko 0,5 puntu gehiago).

10 enplegatuko eta gehiagokoen kasuan, establezimenduen % 96,7k egin du izapide elektronikoren bat. Enpresa horiek, handiagoak izanik baliabide gehiago dituztenez, izapide horiek zuzenean egiten dituzte nagusiki (% 83,0), eta ehuneko hori txikiagoa da (% 57,8) hirugarrenen bidez egiten dutenetan.

Aipatu ditugun erabilera-ehunekoez gainera, egindako izapide elektroniko nagusien xedea izan da informazioa eskuratzea (% 68,5), hainbat motatakoa, eta inprimakiak eta datu-orriak eskuratzea (% 64,7). Bide hori ere asko erabiltzen da gizarte-kotizazioak eta zenbait zerga-mota ordaintzeko –nagusiki BEZa (% 79,4) eta sozietateen gainekoa (% 61)–.

Izapide horiek Euskal AEko enpresek zer Administrazioarekin egiten dituzten elektronikoki galdetzean, foru-aldundiak (% 86,6) eta Administrazio Orokorra (% 71,8) nabarmendu behar dira; ehuneko horietan zerga nagusien gainean dituzten eskumenek dute eragina. Jarraian, Eusko Jaurlaritza dago (% 51,3), gero toki-erakundeak (% 27,9) eta, azkenik, Europar Batasuna eta beste batzuk (% 10,4).

**Administrazio publikoarekiko izapideak era elektronikoan egiten dituzten euskal enpresak 2020an. (%)**



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

10 enplegatuko eta gehiagoko enpresen kasuan, nabarmen murriztu da Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien edo Administrazio Orokorraren arteko distantzia (% 76,4, % 86,7 eta % 85,9, hurrenez hurren). Halaber, nabarmen egin du gora toki-erakundeekin eta Europar Batasunarekin eta beste batzuekin e-administrazioa baliatzen duen enpresa-proporzioak (% 47 eta % 21,8, hurrenez hurren).

### ***Euskal AEko ia administrazio publiko guztiek daukate web-orria***

Administrazio Publikoko establezimenduen % 98,8k web-orria daukate, berea edo dagokien erakundearena, 2020an. Aurreko urtearen aldean –2019a– ehuneko 1,3 puntu egin du gora (2019an, % 97,5). 10 enplegatuko eta gehiagoko enpresetan, proportzio hori are handiagoa da, % 99,4koa, aurreko urtean (% 98,8) baino sei hamarren handiagoa.

Era berean, Euskal AEko Administrazio Publiko ia establezimendu guztiek baliatzen dituzte 2020an IKTen oinarritzko ekipamenduak. Web-orriaz gainera, establezimendu publikoen % 100ak ditu ordenagailua eta Interneteko konexioa, eta % 99,8k, posta elektronikoa. Bestalde, telefono mugikorra da finkapen gutxien duen IKT ekipamendua; establezimendu publikoen % 85,6k daukate.

Enpresen sektorearekin alderatuta, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) sartzeko ehunekoak handiagoak dira Administrazio Publikoen establezimenduetan. Web-orriari dagokionez, aldea ehuneko 40 puntu baino gehiagokoa da, Administrazioaren alde (% 54,2koa enpresen sektorean). Hala ere, telefono mugikorreko ekipamendua ohikoagoa da enpresen sektorean (% 93,9), Administrazio Publikoaren sektoreko establezimenduetan baino (% 85,6).

2020an IKT ekipamenduak erabiltzen dituzten enplegatu publikoen proportzioa ere oso handia da: langile publikoen % 90,6k ordenagailua erabiltzen du, % 93,2k helbide elektronikoa du eta % 88,2k Internetarako sarbidea du. Enpresen sektorean, langileen erabilerari dagozkion ehuneko horiek txikiagoak dira, zehazki: % 72,5, % 68,1 eta % 67,6, hurrenez hurren.

#### **IKT ekipamenduak eta erabilera-maila Euskal AEko administrazio publiko establezimenduetan. 2020**

	Ordenagailu pertsonala		Posta elektronikoa		Internet		telefono mugikorra	Web-orria
	establ. %	%/enpleg	establ. %	%/enpleg	establ. %	%/enpleg	establ. %	establ. %
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>90,6</b>	<b>99,8</b>	<b>93,2</b>	<b>100</b>	<b>88,2</b>	<b>85,6</b>	<b>98,8</b>
Herri Administrazioa eta defentsa	100	91,9	100	95,0	100	88,8	83,3	98,8
Hezkuntza	100	97,5	100	99,0	100	98,2	70,6	98,8
Osasun jarduerak	100	93,3	100	97,3	100	91,8	100	100
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	100	81,4	99,0	85,4	100	72,5	88,6	100
Administrazioaren beste jarduera batzuk	100	77,9	100	77,1	100	74,7	99,5	96,6

**Iturria:** Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

Esan behar da ekipamenduei eta langileen aldetiko erabilerari dagozkien ehuneko handi horiek dagokien enplegu-maila gorabehera erregistratzen direla; beraz, Administrazio Publikoan ez du ia eraginik establezimenduen tamainak.

Gainera, ia establezimendu guztiek, % 99,5ek, segurtasun informatikoko neurriren bat hartzen dute; bereziki, software eguneratuta jo ohi dute (% 97,9), bai eta pasahitz seguruak jartzera ere (% 97,4).

Konexioa duten establezimenduetan Internetera sartzeko modua dela eta, ia guztiek egiten dute konexio finkoen bidez (% 99,7), eta % 74,6k, gainera, konexio mugikorren bat ere badute. Lehenengoan artean zuntz optikoa nabarmendu behar da (kablea, FTTH...), % 89,7an; hiru urtean bakarrik, ehuneko 11 puntuko igoera izan du (2017an, % 78,9). Konexio mugikorren kasuan, banda zabaleko telefono mugikorra nagusitzen da, establezimenduen % 71,2an, zeinak hazkuntza esanguratsua ere izan baitu (ehuneko 9,5 puntu, 2017tik).

Euskal AEko Administrazio Publikoak garrantzi handia ematen dio Interneten web-orriaren bidez presentzia izateari; hala ondorioztatzen da web-orria duten establezimenduen ehuneko altutik (% 98,8), eta ehuneko hori % 99,4koa da, 10 enplegatuko eta gehiagoko establezimenduetan. Enpresen sektorearen kasuan, % 54,2koa da, establezimendu guztien kasuan, eta % 92,6koa, 10 enplegatuko eta gehiagoko enpresen kasuan.

Web-orri horietan, erakundearen beraren informazio orokorra aurki daiteke, kasuen % 100ean; produktuen katalogoa edo prezioen zerrenda, % 67,1ean, edo baliabide sozialetako profiletarako estekak, % 61,5ean, besteak beste. Enpresen sektorea dela eta, Administrazioak garrantzi handiagoa ematen dio enplegu-eskaintzei buruzko informazio-webeko presentziari (% 62,3, eta enpresetan % 27,5) eta desgaitasuna duten pertsonen irigarritasunari (Administrazioan bere web-orrien % 47,8an aurreikusten da eta enpresen kasuan, % 21,2an).

Web-orrietara sartzeko hizkuntzak direla eta, euskara nabarmentzen da % 98,8an eta gaztelania % 98,3an; ingelesez orrien % 38,0an nabiga daiteke eta beste hizkuntza batzuetan, % 19,1ean. Enpresen sektorean, euskarazko web-orrien eskuragarritasuna nabarmen baxuagoa da (% 42,4), bai eta ingelesezkoena (% 31,6) eta beste hizkuntza batzuen (% 14,3) ere.

#### Hizkuntza erabilgarriak administrazio publikoko establezimenduetako Web orrietan (%). Euskal AE. 2020

	Web orria	Webeko hizkuntzak			
		Euskara	Gaztelania	Inglesa	Besteak
<b>Guztira</b>	<b>98,8</b>	<b>98,8</b>	<b>98,3</b>	<b>38,0</b>	<b>19,1</b>
<b>Lurralde historikoa</b>					
Araba/Álava	99,1	97,7	98,2	32,0	16,0
Bizkaia	99,7	99,0	98,7	44,6	15,1
Gipuzkoa	97,5	99,1	97,8	32,6	26,0
<b>Jarduera-adarra</b>					
Herri Administrazioa eta defentsa	98,8	97,9	97,0	46,9	30,0
Hezkuntza	98,8	100	97,5	16,6	0,4
Osasun jarduerak	100	100	100	11,6	0,0
Jarduera sozial, kulturalak eta beste	100	100	99,5	42,3	20,0
Administrazioaren beste jarduerak batzuk	96,6	96,5	99,0	69,6	41,7

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta administrazioan

#### Software librea Euskal AEko establezimendu publikoen % 66,5ean dago

Establezimendu publikoen % 66,5ek software librea du 2020an, besteak beste, nabigatzaileak Interneten, ofimatikako programak, doako sistema eragileak edo irekiak (Linux,...) eta abar. 10 enplegatu edo gehiago dituzten enpresetan, ehunekoa handiagoa da, % 72,1ekoa.

Bestalde, merkataritza elektronikoan parte hartzen duten establezimendu publikoen ehunekoa % 20,4koa da, 2019ko abenduan.

#### Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
 Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
 Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62